



A.14.1. APALATEGI

A.14.1. APALATEGI

Azalera: 29.839 m²

I. Ordenazio-irizpideak eta Helburuak

Erabilera industrialeko eremu hau N-634 errepidearen ertzetan dago ezarria, Ego ibaiaren ondoan.

Eremu honetan sartu dira Maltzagan dauden eraikinak.

Ez dago hiri antolamenduko proposamenik auzo honetan, Maltzagan dagoen karril parkea trenbide saihasbidearen osagarri gisa berriro zerbitzuan jartzea salbu, eta lehendik dauden eraikinak eta erabilerak finkatzea.

II. Hirigintza-Erregimen Orokorra

Kalifikazio Globala:

O-CG-01 "Kalifikazio Globala", Ordenazioko (I. Liburukia) V. Planoaren arabera.

Eraikuntzaren Baldintza Partikularrak:

Egungo eraikinak, ordeztzekoan, O-AL-AO-1 "Lerrokadurak eta Sestak. Ordenantza Eremuak", XII. planoan zehazturiko lerrokadurei eta sestrei egokitu beharko dira, eta 2/2006 ELH Legearen xedapenak kontuan hartuta Hirigintza Arau Orokorrei egokitu.

Erabilera Baldintza Partikularrak:

Eremuaren erabilera esanguratsuen Erabilera produktiboa da: Hirigintza Arauen agiriko 8.3.09. Artikulua.- Erabilera produktiboa (8. erabilera).

III. Ordenazio Xehatua

Eremu honetan xehatutako eremu-banaketa baldintzak, O-CP-01 "Kalifikazio Xehatua", Ordenazioko (I. Liburukia) VII. Planoan ezarritakoari egokitu beharko dira.